

Astekaria

BARRER

elgoi



IRAKASLE EL ARTEA

ZEZENBIDE

0000  
auto-eskola

San Frantzisko 43,
Tr 74 77 9n

URAK, C.B.

Santa Ana 12. Tel. 74 33 25 - 74 13 76. ELGOIBAR

ganalzatia



BODZGAS
BERZAL
RIOJA ALAVEÑA

Zoininio cle Zerzczi ,5gralSar rriox(do uzia-gifizaileen raria faL;lariaren
ofa. .73erzalfanillicz.4' ,Cere arofoan ezin ayerizen jaL'n ofuen

ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA:

Elgoibarko Udala

ZUZENDARIA:

Alberto Agirreazaldeg

HIZKUNTZA ARDURADUNA:

Aniel Ugarteburu

ERREDAKZIO KONTSEILUA:

Iñaki Arrieta, Antton Bergara,

Edurne Bilbao, Rosa Iriondo,

Jose Inazio Sarasua

KAZETARIAK:

Ainhoa Lodoso

Jasone Osoro

MAKETATZAILEA:

Maite Rementeria,

Edu Sanz

PUBLIZITATEA:

Nekane Etxaniz

ADMINISTRAZIOA:

Josune Fernandez,

M. Angeles Ortuoste

KOLABORATZAILEAK:

Iratzi Agirreazaldeg, Ifziar

Agirregomezkorta, Ana Aizpiri,

Myriam Aldazabal, Isabel Ansola,

Nere Arosteg, Gotzon Arrieta, Pello

Arrieta, Belen Arrizabalaga, Ainara

Burgaina, Urizi Etxabe, Aster

Etxaniz, Sugar Etxaniz, Felix

Ebeceberria, Izaro Etxegibel, Enez

Ezenarro, Iziar Fernandez, Jose

Mari Galdos, Ina Goragarza,

Gotzon Garate, Amaia Gorostiza,

Alfonso Guillo, Moite Iriondo, Ekattz

Isasi, KOKOE, Enrike Iarraituga,

Imanol Larroriago, Haritz Leon,

Jesus Mari Makazaga, Aitor Maya,

Iñaki Odriozola, Ixa Sanchez,

Eduardo Sonz, Jose Inazio Sarasua,

Oihana Tarragual, Alain Ulazia,

Olga Unzilla, Igor Vazquez, Ana

Vila, Miryam Villasante, Alaitz

Vives, Aitor Zaboleta, Yulen

Zabaleta.

BANAKETA ARDURADUNA:

Imanot Larrafiaga

INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.

(Zubillaga Ofiati)

TIRADA: 3.300 ale

LEGE GoRnAiwA:SS-1.0313/92

ISSN:1133-021X

elgoiBARREnek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien eranfunkizunik.



Elgoibarko rock talde berr'ak

Elgoibar musika jarduera ugaritako herria da. Udal musikari bikainez gainera, amai gabea izan liteke gure herrian sortu izan diren edota indarrean dauden musika taldeen zerrenda.

Nik gaur eta hemen beren kasa musika jotzera biltzen diren rock talde gazteen alde hitzegin nahi nuke.

Musika maite dute, uste baino sentsibilitate handiagoa dute, orduak eta orduak ematen dituzte entsaiatzen, maiz larunbat eta igande arratsaldeetan, eta gainera, ondo pasatzen dute.

Duela 25 urteko arazo berberak dituzte (entsaiatzeko lokalik ez eta instrumentuak inguratzeko zailtasuna), baina hauei jendaurrean non jorik ez dutela erantsi behar zaie. Udaletxeak herriko jai egitarauan egiten dien lekuaz aparte, oraindik bizirik irauten


duten Gaztetxeetakoren batek soilik eskaintzen die jendaurrean jotzeko aukera, musu truk ia, eta instrumentuak nor bere kontura eramanez.

Sortzen den musika talde berri bakoitzak gazte jarraitzaile andana ugari samarra duenez gero, ez dut uste lau katuren ekintza partikularra bailitzan hartu behar denik. Ez eta beren arazo guztiak inork konpondu behar dizkienik ere.

Estimulu garrantzizkoa izan liteke haientzat, halere, Udaletxeak, beraiekin ados jarri eta epaimahai bat osatuz, herriko jairen batzuetan jendaurrean jotzeko moduan dauden denek parte hartzeko kontzertua antolatu eta saio guztiak grabatuko balira, geroago, beste jai batzuetan, normal ordainduta, nork edo nortzuk joko luketen erabaki ahal izateko.

Alfonso Guilló

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*



1111111

• Irakurle batek deitu digu Euskal Herrian zehar **BARREN** bezalako zenbat aldizkari dauden galdetzeko.

Euskarazko aldizkariak asko badira ere, astero zazpi ateratzen dira: zaharretik hasita, "Arrasate Press" (Arrasate), "Ene Bada" (Legazpia), "Ben'igara" (Bergara), "BARREN" (Elgoibar), "Eraz" (Durangaldea), "Irutxulo" (Donostia) eta "Eta Kitto" (Eibar).

2j KEXAK

Santa Klara auzoan bizi den pertsona batek deitu digu auzo horretan telefono kabinarik ez dagoela kexatuz. "Auzo hau besteak baino gutxiago al da?" esanaz, laster batean kabinaren bat ipiniko duten esperantzarekin agurtzen zaigu.

TXALOAK

Irakurle batek deitu digu *Errotatxo* osatzen duten guztiak txalotu nahi dituela esateko. Prebentzio Astea dela aprobetxatuz, lanean gogor j arraitzeko animoak eman nahi dizkie.

ESKUTITZAK

Administrazio euskaldun baten bila

Maiatzaren 2an izandako Plenoan Herri Batasunak abstentziora jo zuen igeltsero plaza berriari dagozkion oinarrietan.

Plaza berri horri bigarren perfila dagokiolako lehendabizi. Baina badira beste arrazoi batzuk. Euskara oinarri horietan "merito" bezala azaltzen da, 44 puntutik 3 puntutan baloratzen da soilik. Honek esan nahi du, plaza horren jabe egiten dena, probabilitate aldetik ikusita, erdaldun hutsa izango dela. Herri Batasunaren ustez, Administrazioko langile berri guztiei hizkuntz ofizial biak eskatu behar zaizkie plazaren jabe egiteko. Hau da modu bakarra benetako pausuak emateko Adiministrazio euskalduna noizbait lortu nahi badugu.

Gaur egun udaletako langileak euskalduntzen milioiak eta milioiak gastatzen dira, emaitzak, gutxienik, eztabaidagarriak direlarik.

Bere perfilaren jabe diren langileek, bestalde, askoz ere hobeto burutu ahal izango dituzte Administrazioan betebeharreko lan guztiak.

Hau da Herri Batasunak gaurtik aurrera eramango duen jarrera. Pleno honetan ikusitakoak beste zerbait erakusten digu. PSOE eta PNVk orain arteko linean darraite. EAren jarrerak harrিতuta utzi gaitu.

Donostian Herri Batasunarekin batera joan zen, baina Elgoibarren PSOE eta PNVrekin batera lenotu zen.

Ea zelako jarrerak ikusten ditugun hurrengo Plenoetan plaza berriak irteten direnean.

Herri Batasunako zinegotziak

Emakume, salatu beti erasoak!

Nahiz eta emakumearen nosotasuneko askatasun fisiko eta eskubide morala onartuta egon, inolaz ere tratu degradatzaile eta ez gizatiarrak jasan beharko ez lituzketela. Emakumeek sarritan pairatzen dituzte era guztietako irainak (kolpeak, burlak, mehatxuak,...) gizonezkoen aldetik, euren etxekoenak barne: senarra, aita...; norberaren etxean sufritutako irainak, baita kalean eta beste zenbait tokitan ere.

Askotan erasoak ez dira salatzen, gizarteak jarrera negatiboak izaten dituelako kasu hauetan, hala nola emakumea gertatzen zaionaren errudun kontsideratzea, jasan duen erasoak berak bilatu izan balu bezala, edo erasoek bere onspena eman izan balio bezala bortxatzailearekin, zuzenki edo zeharka, ados egonik.

Andraize emakume Taldeak, erasoen aurrean zer egin edo nora jo jakin ahal izateko, tripkito informatibo bat kaleratu du. Maiatzaren 21ean zuen eskuetan izango da.

Andraize Emakume Taldea





ste honetako erretratua, **Lucia Zabalak** lagatakoa da, eta 1935.

urtearen bueltan ateratakoa izan daitekeela esan digu Luciak. Bertan azaltzen direnak Elgoibarko

470

LAGUN ONAK ORFEOIA

osaten zutenak omen dira. San Frantzisko kalean zuten lokalean ateratako argazkia da. Jakin dugunez, Orfeoi hau kantura eta antzerkira dedikatzen zen. Erretratuan agertzen direnetatik hiru bakarrik daude bizirik, baina interesgarria iruditzen zaigu zuei erakustea. Ikus dezazun zeintzuk diren.

Gotik behera ezkerretik hasita: Atzeko ilaran: **Pepe**

Etxaniz (t), Agustin Zubiaurre (t), (Txapelduna), Romualdo Andonegi (t), Sebastian Epelde (t), Rikardo Astigarraga (t), Jaxinto Astiazaran "Usurbil" (t), Rufino Garate (t) eta Gernan Uriguen "Etxegilia" (t).

Bigarren ilaran: **Maria Abascal (t), Faustino "Navarrico" (t), Antonio Santolaya (t), (Pajaritaduna), eta Angel Suarez (t).**

Hirugarren ilaran: **Gloria Arano (t), Pepita Ibieta (t), Luisa Abascal (t), Teodora Gurrutxaga (t), Lola Bidaurreta (t) eta Paca Ondarre.**

Lurrean eserita: **Gloria Suarez, Migel Sanchez eta Maria Larreategi (t).**

(7 7 77 X t;1'

filtaiteeldn hudil ileatzdho
MEN BEREZIRN

*Offda Fas'aj'afal/
re zi 01 90tzpsyle*

BIDE GAIN

*Ondo pasa
jaiak*

TABERNA

Urasandi - 1 blokea, 15 ☎ 74 32 95

It;

E4'e«-ZaPte~tj

441 ~ 91 ~ 1,

Poweeea'

7ovrta,'

Vya ~

GOZOTEGIX

Bartdome 34-35 Tel: 74 03 45

"i":41"

Caliziarrak Elgoibarren

Elgoibarko galiziarrek "Dia Das Letras Galegas" izeneko jaia ospatzen ari dira egunotan. 1982. urtetik antolatzen ditu Galiza Etxeak jai hauek eta galiziarren ohiturak iraunarazteko ahaleginaren adierazgarri dira. Festa hauez gain, ohiturak, foildorea eta hizkuntza bera ere gordetzeko ahalegin handia

egin dute beraien herrialdetik alde egitera, lan arazoengatik gehienetan, behartuta zeuden galiziarrek. Galiziatik etorri ziren haiek eta beren ondorengoek, hau da, bigarren eta hirugarren belaunaldiek, beraien arbasoengandik jasotako ohiturak nola bizi dituzten gaur egun jakin nahi izan dugu.

Galiziarrek tinko eutsi diete beraien ohiturei jaioterritik urrun bizi arren.

Norberaren kultura gordezteko galiziarrek egindako ahalegina, erakusgarria da benetan. Elgoibarren bizi ziren galiziarrek beraien "etxe" propioa sortu zuten 1978. urtean. Gaur egun 47 bazkide ditu. Galiziar kultura, hizkuntza eta gastronomia barne, gorde eta susperzteko asmoarekin sortu zuten. Galegoz hitz egiten dute eta sukalde gaitan ere, Galiziako jakiak prestatzen dituzte. "Dia Das Letras Galegas" jaien antolatzaile ere badira eta jai hau Elgoibarren ospatzen hasi zirenetik, 12 urte pasa dira dagoneko.

Dia Das Letras Galegas

Galiza Etxekoek Galiziako Xuntaren eta Ourenseko Diputazioaren laguntza jasotzen dute jaiak antolatzeko. Horrelako laguntza jasotzeko. Galiza Etxekoek "galiziaratasun" izendapena lortu behar izan dute, baldintza batzuk betez gero. Behin galiziaratasuna eskurata, hango Diputazioen laguntza jasotzeko eskubidea lortzen da.

Dia Das Letras Galegas



Galiza Etxean ohiturak bizi bizi gordetzen dira.

jaia, izenak berak dion bezala, Galiziako idazle ezberdin haten ermenez egiten da. Aurten Luis Seoane idazle eta pintatzaile ezagunaren izenean ospatuko dira jaiok. Galiziako kulturaren adierazgarri dira egun hauek. Sukaldaritza ezinbesteko osagaia izan ei da. Galiziako jaki tipikoak dastatzeko aukera ezin hobea izango du bertara urreratzen denak: Carballino "A Morocha" pulpeirak egindako olagarroa, enpanadak, egositako lakoia, oreiak, Ribeiro ardoa... Ez dira jai honetan falta izango, Danza Andaina Da Lua eta Tuna Anduriña-

ren saioak.

Tuna Anduriña

Jai propioak izateaz gain, Elgoibarko galiziarrek musika folklorikoko taldea ere badute. Tuna Anduriña gitarra taldea da eta Elgoibarko gazteez osatuta dago. Talde hau sortu aurretik, ha omen zen Elgoibarren gaita talde bat, baina, Eibarko Galiza Etxeak bere gaita taldea sortzean, elgoibartarrak hara joan ziren. Gaur egun Tuna Anduriña da herrian dagoen talde galiziar bakarra, eta berau da Galiziarren jaien adierazpide garrantzitsuenetariko bat.

Tuna Anduriña da Galiziarren jaien adierazpide garrantzitsuenetariko bat.

Nola bizi dira galziarrak Elgoibarren?

Zenbat galziar dagoen Elgoibarren jakitea zaila bada ere, jakin badakigu ehundaka familia etorri zirela lanpostu bila Euskal Herriaren bultzada ekonomikoaren garaian. Galiziatik bakarrik ez, La Mancha, Extremadura eta Andaluziatik ere mordo batek emigratu zuen honantza bizitza hobea baten bila. Dena den, Elgoibarren bizi diren etorkinen artean, galziarrek osatzen dute multzorik jendetsuena eta kulturalki ere beraiek dira ohiturak sendoen gorde dituztenak. Rey Quiroga familia, galziar horietako bat da. Ezagunak dira gure herrian taberna, pintura, taxi eta autobusen negozioa izateagatik. King-Kong tabernako Rey-Fernandez-Quiroga familiakoe-kin egon gara eta jaioterriko ohiturak bertokoe-kin batera nola bizi dituzten galdetu diegu.

Rey-Quiroga familiak ez ditu oso gertutik galziarrek antolatutako ekintzak bizitzen. Arrazoia, baina, lanerako grina eta denbora libre eskasa da. Dena den, oso gustuko dute galziar kultura eta folklorearekin zerikusia duen guztia, euskal folklorea ere bai.

Ohiturak bizirik

Manolo Rey Quiroga-
ren sendian hizkuntza hedatuena gaztelera bada ere, galzieraz hitz egiten omen du senar-emazteak bere artean. Seme-alabek, Manuk, Angelek, eta Mercek, ordea, ez dute galziera ikasi, "hitz eta esaldi solteak" bakarrik. Gastronomía,



Rey Quirogatarak familiako bat ezkondu zenean, ia bere osotasunean.

berriz, bizirik mantentzen da familian. Ezagunak dira King-Kong tabernako lakoia, greloak, enpanadak etb. Gainera, aberasgarria izan da bi kulturen konbinaketa, King-Kongeko Mercedes Fernandezek, euskal sukaldaritzaren eta galziar sukaldaritzaren onena ba-

"Gazteek ez dute borondatez behintzat, Galziera itzultzeko asmorik"

tzen jakin izan du eta. Erabat integratuta sentitzen direla esan digute, "inoiz ez dugu era honetako arazorik izan". Euskara ikasteko ahaleginik ere egin dute, izan ere, Rey Fernandez Quiroga familiako anaia zaharrena, Manu, euskaltegian ari baita euskara ikasten.

Rey Quirogatarren historia laburra

Beste familia asko bezala, Rey familia oso osorik etorri zen Elgoibarrera Ourenseko Almoite (Baños de Molgas) izeneko herrixkatik. Lehendabizi Reyarren artean seme bat etorri zen San Pedroko fundiziora lanera. Lana ugari zegoela eta, 7 anai-arreba eta aita-ama etorri ziren azkenean. Amaren aldetik ere, gauzak antzera gertatu ziren. Quirogatarrek 8 anai-arreba izanda, denak etorri ziren Maceda herritik Elgoibarrera, bat ezik. Galizian jaio arren, oso gazte etorri ziren Elgoibarrera. Rey Quiroga sendiko bi anaia, Juan eta Manolo, Fernandez familiako bi ahizpekin ezkondu ziren, hauek ere Galiziatik etorritakoak. Urteak aurreratu joan ahala, Rey-Quiroga sendia erabat ezarri zen herrian, han eta hemen negozioak irekitzen hasi zirelarik: "Pinturas Lau", "Ongi-Etorri", "La Perla", "Terraza" (gaur Batzokia), "Bar Celta" (gaur Txuri-Beltz), "Rey Quiroga" autobusak eta King-Kong taberna dira Rey Quiroga anaiek sortutako negozioak.

Gaur egun, Manolok eta bere emazte eta hiru seme alabek King-Kong tabernan lan egiten dute eta bertan ematen dituzte eguneko ia ordurik gehienak. Juan Rey Galziera itzuli zen eta autobusen negozioa alabak darama orain. Anaia Quicok "Pinturas Lau"rekin jarraitzen du. Serafin taxista da eta honen bikia Galizian bizi da. Dirudienez, galziarren artean hedatu den ohitura jaioterrian harrizko etxetxea egin eta jubilatzerako bertara bizitzera joatea da. Belaunaldi gazteek, berriz, ez dute borondatez behintzat, alde egiteko asmorik.

Logopedia
Zentroa



Isabel Gil Arrocha

- Hizkuntz arazoak
 - 9 Hizketa arazoak
 - Ahots arazoak
- 411 Irakurtzeko eta idazteko arazoak

Bidebarrieta, **nat**
Tel. 44 94 74 EIDAD

MIREN
arraindegia



Santa Ana
74 34 49
ELGOIBAR

Drogomenpekotasunen prebentzioa

rebertzioaz hitz egiteko orduan, egoera jakin batetik abiatu behar dugu: drogak betidanik egon dira eta zibilizazio guztiek, herri guztiek, kontsumitu dituzte. Zenbait kasutan gainera fenomeno kultural edota sozial bihurtu da.

Gure herrian, benetako arazoa sortzen da droga berriak azaltzean (legez kanpokoak deritzenak), gure bizimoduan ezezagunak. Berauek, arrazoi ezberdinak direla eta agertzen dira; interes politiko eta ekonomikoak, biek esku harturik.

Hau horrela, PREBENTZIOA, drogekin bizitzen jakitea bezala ulertu behar da, hauen menpe egoteke, baina badirela ukatu gabe. ERROTATXOK, drogomenpekotasunen fenomenoaren NORMALKUNTZARAKO aurrerabidea, zentzu honetan planteatzen du.

Aurrekoa kontutan harturik, Elgoibarren Prebentzio lanetarako iharduerak beti izan dira hiru:

PREBENTZIO SOZIALA: Droga trafikoa salaketa eta sentzibilizazio kanpainen bitartez.

FAMILIA PREBENTZIOA: Era-

gindakoak eta beren senideak lagundurik.

ERAKUNDE MAILAN: Udaltxe eta beste erakunde (epaileak, polizia, e.a.) batzuen egitarau zehatzak exijituz eta bultzatuz.

Gure ekimenaren beste helburuetako bat izan da "PREBENTZIOA GUZTION LANA DA" planteatzea, gure herrian bizi-maila hobea lortzearen borrokatuz eta honetan herriko kolektibo guztien laguntza dugularik, inor baztertu gabe.

Honen islada da burutzen ari garen PREBENTZIO ASTEA, zeinetan parte hartzera gonbidaturik zaude-



GEMMA AGIRREGOMEZKORTA

ETA 1112-KLINTZfiken ,ir lif,,,

Ekainaren 5ean, San Pedron.

A ilzena emateko: Morkaiko M.E.

Elgoibarko Izarra

(azken eguna ekainak 1)

ANTOLATZAILEAK:
Morkaiko M. E.
Elgoibarko Izarra K. E.



LAGUNTZAILEAK:
Elloibarko Udala
Gipuzkoako Foru Aldundia




1 -t• et ie / 10 (1/9) f LAV kw- 001.
/ 41) (1/10) /
3« 00 Pkte / VO "
1 (10, e abtoe, / No» 52,
kaskak abtoe, / De^baxae
opta)

Zer egin daite (e. drogen prebentziorako Elgoibarre i?



P1LAR UR1BE

50 urte, arrain saltzailea
Denok ados jarri beharko ginateke, batez ere seme alabak ditugunok, kalera irten eta saltzen dutenei aurre egiteko. Nik ere aurre egin nien garai batean.



JOSU MENDIKUTE

17 urte, ikaslea

Informazioa falta da, gaztien artian batez ere. Gu tabernetan ibiltzen gera eta ez jakuz okurridu sekula beste alternatiba batzuek, baina egongo bazian hobe.



MONTSERRAT SANDOVAL

36 urte, etxekoandrea

Informazio asko dagoela iruditzen zait komunikabide guztietan. Ez naiz legalizazioaren aldekoa. Beste giro bat sortu beharko tzateke, baina zaila da.



PILI LOSADA

32 urte, administraria


Eskolatik hasi behar da informatzen, dokumentalen bidez drogen errealitatea erakutsiz: nola engantxatzen diren, ondorio latzak eta HIESaren arriskua.



JOSE ENRIKE LOIOLA

45 urte, Kiroldegikoa

Indar gehixo euki beharko leukete ertzainek eta munitzipalek jende gaztia zaintzeko. Informazioa nahikua dao, nahi duanak arduratu ein beharko leuke.



RAMON GARCIA

44 urte, kamioi gidaria

Ez dakit zein neurri har daitezkeen. Legalizazioa ere ez dakit soluziorik onena den. Trafikatzaileei droga paketea oso osorik irentsi araziko nieke.

**HERRI-GAIN
ERRETEGIA**

San Pedro auzoa 4
(☎ 74 30 40) ELGOIBAR

Mutua General de Seguros

**ASEGURATU
ZURE TIROA**

DRESTATIOAK

- Derrigorrezko erantzunkizun zibila
- 25.000.000 ptako garantiodun, borondatezko erantzunkizun zibila
- Ehizo nagusi eta xehearen arriskuak
- Bi txakur izatea

Urtean 2.085 pta.

Pedro Mu uruza 4 behea. ELGOIBAR.E074 26 99

MIGPn aurka azaldu da Gaztetxeen Koordinadora

Gipuzkoako Gaztetxe eta Gazte Asanbladen koordinadora Maltzaga Urbinari buruzko IGP edo NIPen emaitzen aurka agertu da. "Erakunde publikoen irudi txarra garbitzeko tresna" direla IGPak salatzen du Gaztetxeen Koordinadorak eta, "eztabaida publikoa eta erantzun soziala izkutatzeko" erabili direla. Era berean, IGPak "fartsa" bat izan direla salatzen dute, Maltzaga-Urbinaren aurkako zenbait ponentzia, Elgoibarko Gazte Asanbladarena eta beste pertsona batzuren kasu, onartu ez zirelako. Elgoibarko Gazte Asanbladak horregatik Arartekoari eskatu dio prozesu osoa baliogabetzeko.

■ Zigorrik gogorrenak Aitor eta Iban Esnaolarentzat

Joan den hilean epaitu zituzten Aitor eta Iban Esnaola intsumisoak. Bientzat, epaileak zigorrik gogorrena ezarri du: bi urte, lau hilabete eta egun bateko gartzela zigorra, hain zuzen. Aitorrek ez du sententzia errekurrituko, epaitegia bera ere errekonozitu ez zuelako. Beraz, prozesua ahalik eta gehien luzatzea espero du Aitorrek eta "nere bila datozenean ikusiko dugu zer egin". Iban Esnaolak, errekurritu egingo du sententzia eta zigorra bete beharko duela asumituta daukan arren, "epailearen aurrean esandakoa aintzakotzat har dezaten nahi dut". Sententziak salatzeko Talde Antimilitaristak eten bat burutu zuen ostegunean Institutuan eta Mekanikan eta Giza katea eginez PSEren "Casa del Pueblo"raino joan ziren.

Gogoratu era berean, datorren ekainaren 6an, Esteban Gabiola, 20an Fernando Garate eta 21an Luziano Arregi elgoibartarrak epaituko dituztela.

Herriko 36 talde bilduko ditu Errotatxok Prebentzio Egunean



Errotatxo elkarteak, herriko 36 kolektibo bilduko ditu larunbat honetan, hilak 21, "Bizirik Bizi" lemapean burutzen ari den Prebentzio Astearen barruan. Urtero bezala, Plaza handia izango da taldeen kokaleku, ikusleek, antolatutako tailerretan parte hartzeko aukera izango dutelarik. Besteak beste, artisautza, irratia zuzenean, erakusketak... egongo dira ikusgai. Giroa animatzen arituko dira, berriz, bertsolariak, dantzariak, kirolariak, txaranga

eta trikitalariak. Iragandako astean zehar, diseinuzko drogei eta legalizazioari buruzko bi hitzaldi burutu dira Kultur Etxean, hauek ere, prebentzio Asteko ekitaldien barruan. Plazako kontzentrazioaren ostean, eguerdiko lean, droga trafikoaren aurkako eta prebentzioaren aldeko manifestazioa hasiko da. Drogei aurre egiteko "bide bakarra prebentzioa" dela gogoraraziko du egun honetan Errotatxok eta, "trafikanteei ez" esateko eskatuko du.



Galiza Etxeak antolatutako Dias Das Letras Galegas jaiaren egitarauaren barruan, Chaves tiraldia hurutu zen joan den larunbatean. Jatorriz Galiziakoa den joku hau arandela batzuk 14 metrotako distantziara jarritako gurutze formako tresna batean sartzean datza. Egun horretan anaiarteko bazkaria egin zuten Galiza Etxean eta asteburu honetarako ere, ekintza mordo bat antolatu dituzte galiziarrek.

Ikasle alemaniarrak Mekanikan



Alemaniano MUNster hiriko Lanbide Heziketako 12 ikasle Elgoibarren dira hilaren 14tik, Lanbide Heziketaren interkanbio programaren barruan. Arlo komertziala lantzeaz gain, ikasleak gaztelera ere ikasten ari dira. Enpresa ikasketak eta hizkuntza oinarritzat hartuta, Alemaniako esportazio enpresetan lan egiteko prestatzen dituztela ikasleak azaldu digu hauen arduradun

den Joseph Maria Horstmann irakasleak. Esan digutenez, asko gustatu zaie gure herria, industria eta nekazaritza eta, nola ez, gastronomia. Alemaniako irakaskuntza publikoa kalitatezkoa izateaz gain, enpresen eta eskolaren artean kolaborazio oso estua dela adierazi digute.

Interkanbio honen barruan, Lanbide Heziketako ikasle talde bat Alemaniara joango da ekainean.



Zortea gure artean izan da nonbait. Argazkiko senar-emazte honi, Lourdes Ramirez eta Eugenio Mediavilla elgoibartarrei, Futbol Mundialak ikusteko aukera emango dien bi pertsonarentzako Chicagora bidaia tokatu zaie, CS autoentzako olio etxearen eskutik. Eugeniok esperantza handirik gabe bidali zuen zozketarako txartela, "inoiz ez baitzaigu ezertxo ere tokatu" dio elgoibartarrak. Estatu osoan 15 bidaia zoiketatu ziren. Bidaia ekainaren 20tik 28ra bitartean egingo dute. Eugenio futbolzale porrokatua da eta dagoeneko, Espainia-Alemania eta Espainia-Bolivia partiduak ikusteko amorratzen dago.

• 50 urte dituztenen **jai**a

50 urte betetzen dituztenek, hau da 1944. urtean jaiotakoek, 50. urteurreneko jai ospatuko dute ekainaren 4an, larunbata. Asmoa berriz elkartzea, elkar agurtzea eta momentu zaharrak gogoratzuz 50. urteurrena ospatzea da. Egun horretako egitarauari 12etan ospatuko den mezarekin emango zaio hasera. Baltasar elkartean lunch-a izango dute eta 2,30ak aldera bazkaria Herri Gain jatetxean. Parte hartu nahi duenak 6500 pta sar dezake KUTXako 01.2095840.0 kontuan maiatzaren 27a baino lehen edo telefono hauetara deitu: 74 23 22 / 74 42 15 / 74 02 83.

■ Emakunde Eigoibarren

Emakundek "Gero eta gertuago" programaren barruan, bulego ibiltaria irekiko du hil honen 23an, astelehena. Arratsaldeko 3,30etatik iluntzeko 7,30ak arte emakumeen zalantza, iritziak, informazioa, kontsultak zein galderak erantzuteko prest egongo dira Emakundeko ordezkariak Kultur Etxeko aretoan. Ondoren, arratsaldeko 7,30ak aldera "Shirley Valentine" filmearen emankizuna hasiko da.

• | Posta bidezko botua

Elgoibarko Herri Batasuna alderdiak postaz botua eman nahi dutenei zera jakinarazi nahi die: botua tramitatzeko Kimetz elkartera jo daitekeela, goizez 10etatik 11etara eta arratsaldez 6etatik 8etara bitartean, egunero.

• Atletismoa eztabaidagai

Elgoibarko atletismoaren etorkizunari buruz hitz egiteko bilera baterako deia zabaldu da hil honen 23rako. Izan ere, Ego-Toki Atletismo elkarteko arduradunek errelebua eskatu dute, eta beraz, gai honetan interesik izan dezakeen orori bilerara ager dadin eskatzen zaio. Bilera Ikastolan izango da, astelehenean, arratsaldeko 8,15etan.

Mendaroko Umeen Euskal Jaia

Mendaroko Gazteak Dantza Taldeak antolatuta, datorren ekainaren 26an Umeen Euskal jaia ospatuko da. Bertan, Erreterria, Bergara, Oñati eta Mendaroko 200 dantzarik hartuko du parte. Mendarotarren laguntza eskatzen da dantzari hauek etxeetan har ditzaten bazkaltzeko. Izena emateko epea, maiatzaren 23tik ekainaren Ilra bitartean izango da, Sastreria, Leku-Ona eta Zulakia Anaien dendan.

■ Bandaren kontzertua

Uda! Musika Bandak kontzertua eta kalejira eskainiko du igandean, hilak 22. Goizeko 11etan kaleak kalejiran zeharkatu ondoren, 12,30ak aldera Foruen plazan kontzertua emango dute. Jose Antonio Osororen zuzendaritzapean bost obra joko dituzte: "Segrelles" (Vilaplana), "Escena y gran marcha de la opera, Aida" (Verdi), "En un mercado persa" (Ketelbey), "Entre Flores" (Pacheco), "West Side Story" (Bernstein). Hurrengo larunbatean, hilak 28, Musika Bandak haur tanborradarekin batera joko du arratsaldeko 7etan hasita.

Elgoibar-Azkoltia errepidearen bigarren zatia zaballik



Gaur, ostirala, eguerdiko 12,30etan inauguratu da Elgoibar-Azkoitia errepide berriaren bigarren eta azken, fasea. Bertan izan dira, besteak beste, Jose Antonio Ardanza lehendakaria, Eli Galdos Gipuzkoako Diputatu Nagusia, Roman Sudupe Azpiegitura Diputatua bai eta Elgoibar, Azkoiti zein Azpeitiko alkateak ere.

Bigarren fase hau Azkaratetik 634 nazionala arte luzatzen da, A8 autopistarekin lotuz, 18m-ko erradioa duen glorieta biribil baten bidez. 4750 m-ko luzera dauka eta

hiru karril.

Proiektuak izan dituen obra nagusien artean, 410 m-ko luzera duen tunela, hiru karril dituen, eta trenbide azpitik doan pasabidea daude.

Guztira 9 km izango ditu bide berriak, 15 minutuko denbora behar-ko delarik, gutxi gora behera, Elgoibartik Azkoitira joateko. Lehen, 12,5 km-ko luzera zuen, bidea kaskarra zen oso, eta, bataz beste, ordu erdi bat behar zen ibilbide osoa egiteko. Kostuari dagokionean, 2.300 milioi-koa izan dela aipatu.



IRAKASLE ESKOLA

Magisterio Eskolak zera jakinarazten du:

1994-95 ikasturterako aurreinkripzio-
epea zabalik dagoela.

Ikastetxe honek, Euskal Herriko Unibertsitateak onartu dizkion Espezialitateetatik, honako hauek ezartzeko eskabidea egin du 1994-1995 ikasturteari begira:

- Haur Hezkuntza
- Atzerriko Hizkuntza: Ingelesa
- Hezkuntza Musikala


Informazioa

IRAKASLE ESKOLA. Tel: (943) 71 41 57
20540 ESKORIATZA (Gipuzkoa)

ARKlai

Ficanzarzwain

San frantzisko 30 Tel 74 00 28₄j.



EGONDO, 5.a.i.

METALEZKO ERAIKUNTZAK
KALDERERIA LANAK OROKORREAN

Deba kalea 4-7 a 74 34 08-04 FAX 74 34 08

Laharrak BERRI

3. ADINARI ZUZENDUTAKO 3. GEHIGARRIA



Eskolara eramaten dituzte, irteeran jasotzen, bazkaria prestatzen dute, istorioak kontatzen dizkiete, parkera joan eta elkarrekin jolasten dute eta, noizean behin, edo ahal denean, oparixoren bat ere egiten diete. Errieta egiten ere badakite, nahiz eta merezi baino bronka gutxiago jaso ditugun eurengandik. Bigarren amatasun bat bizitzeko garaia dute amonek, beharbada semeekin gozatu iza'n ez zutena bizitzeko aukera aitonek. Osasuna dute, eta esperientziak ematen duen abantaila. Ez da harritzekoa, beraz, biloben ardura aiton-amonengan uztea askok eta askok. Zer egingo lukete hainbat bikotek euren laguntzarik gabe?

1444) T 14L IK

Gelatxo, Zaharren Biltokian

Datorren maiatzaren 27an, Trinitate jaiak ospatzen direla eta, dantzaldia antolatu dute Zaharren Biltokioek. Gelatxo izango da bertara hurbiltzen diren guztiak dantzan jarriko dituen. Ekitaldia arratsaldeko 6etan hasi eta 9ak arte luzatuko da.

RENFEren urrezko Rtxartela

60 urtetik gorakoek eta lanerako ezintasun iraunkorra duten jubilatuek RENFE-ren Urrezko Txartela atera dezakete. Txartel honi esker, ibilbide luzeko bidaietan %35 edo %25eko beherapena daukate, bidaiaria mota eta irteera egunaren arabera. Hurbileko bidaiari dagokienean, berriz, egunero %40ko beherapena dute. 60 urtetik gorakoek, N.A.N-aren zenbakia aurkeztu behar dute RENFEko geltoki batean txartela eskuratu nahi badute eta gainontzeko jubilatuek ezintasunaren agiria.

Eusko Trenbideko doaneko txartela

Eusko Trenbideak ere eskaintzen ditu doaeiko txartelak jubilatuei eta pentsionistentzat. Horien bidez, zenbait bidaiaria doan egiteko aukera omen dago. Elgoibarko Jubilatuen Etxean lor daitezke eta informazio gehiago jaso nahi duenak ere bertara jo dezake.

PEPE ARRILLAGA: "33 urte harrapatuko ez genduan beldurrez hara hemen 81 ekin"

Arrillaga deiturak badu pisurik Elgoibarren. Nork ez du gogoratzen Antonio Arrillaga, herriko mediku, alkate eta borondatezko gizon aparta izanikoa. Edo eta Julian, aurrekoaren semea. Aita eta anaiak bezela, sendagile tradizioa jarraitu zuen Josek ere. Hirurak aritu ziren Elgoibarren eraiki zuten klinikan, Arnoate izenekoa berau, aita jaio zen baserriaren omenez. Pepek, ordea, izan ditu profesioaz gain, asko gozatu dituen bestelako afizioak ere: ehiza, arrantza eta marrazkia edo pintura. Badu gizon honek halako enkantu berezi bat, kontu eta txisteen artean benetako barreak egin genituen elkarrekin. Eutsi umore horri, Pepe!

- Jose ala Pepe?


- Herrixan Pepe esaten die. Umetan hasi zian Pepe deitzen eta neri igual jata.

- Oraingo umeei irakatsiko zenienek jolas bat?

- "Txirikillian" ibiltzen ginan gu asko. Palotxo bat hartzen gendun, puntak zorrozuta. Hari beste palo batekin jo eta paretan kontra jarritxa zauan beste makila baten azpitzikan pasatzia lortu bihar gendun.

- Orain "danetik daukagu", ez omen dao aspertzerik.

Gure denboretan igual ez zan telebisorik egongo baina guk bazakagun zinia. Domekero juten ginan, pelikula politxak botatzen zitxuen. Serie tipokuak zian, igual bi hilabetian pelikula berdina bo-



tatzen zeben, kapituloka edo. Zaratia ere ugari eukitzen gendun, eskandalo demasal Neskak eta mutilak egon leiken alkarrekin jarritxa baina zine parrokiara hasi zanian apaizak egoten zian zaintzen. Pelikulan zeoze berde xamarra agertzen bazan, tapau itxen zaben.

Futbola, atletismoa, ehiza...

Bai, danak in nitxun. Kazia asko gustau izan jata beti, gehixen, hori eta peskia. Kazan aitxakin hasi nitzan, berak erregalatu zian nere lehenengo eskopetia.


- Profesioz medikua, baina bokazioz ala obligazioz?

- Bokazioz baino gehixao igual etxian ikusitxa. Baina gustatzen jatan. Karreria amaitxu baino lehen euki nitxun pazientiak, aitxari "rayos x"ak itxen laguntzen nion, berak eskuak erreta zitxun eta hainbestetan ein zabalako.

Antonio Arrillaga, nolakoa



zkoitxira ezin zan jun erromerixara, han neskekin dantza itxia ez zan fibre eta.



zen?

- Oso ederki akordatzen naiz aitxakin. Gizon oso frankua zan, frankoegixa. Harek ez zion kobratzen inori eta guk ere haren eskolia euki gendun eta ez gifivan kobratzen elgoibartar inori.

- Marrazten ere badakizu, Pepe.

- Esku ona dakatela esan leike. Herriko jende askoren karikaturren in ditzut, danak buruz, argazkirik gabe. Batzuek hasarratu ere itxen zian, ja, ja, ja... Dibujua eta pinturia asko gustatzen jataz, nik gehixen oleoa erabiltzen dot. Koloria gustatzen jata, kolore fuertiak, bizixak.

Arte abstraktua ere artea al da?

Ze esango dizut nik ba. Neri ez jata gustatzen. Behin Madrilen "Salon de humoristas" izeneko esposizio batian bazauan quadro haundi bat, pareta modukua, zuri-zurixana dana eta erdixan motatxo bat. Azpizan titulua: Soledad. Ja, ja, ja...

Bete al zaizu txikitako arnestsik?

- Gerria bizirik geundela amaitzia. la 33 urte harrapauko gendun, zikira, Jesukriston edadia. Huraxe zan gure kezkia! Ta hemen gaude, **81ekin**.

Altzolako biltokia, Elgoibarkoaren adar bat

Altzola Elgoibarko auzo bat izanik, gutxien ezagutzen duguna dela esan daiteke, distantziak eraginda akaso. Orain denbora gutxi jakin genuen altzolatarrak badutela euren nagusientzat propio egokituriko lokal bat, Elgoibarko Zaharren Biltokiaren parekoa, edo antzekoa. Maria Mortalena da bertako ordezkaria eta harek ondotox azaldu digun bezala, "gu, Elgoibarko zuhaitzaren adar bat gara".



Alizolako jubilatuei karta jokuan egitea atsegin zaie.

Elgoibartik Mendarora goazen heinean, ezker aldean, erreka bazterrean, eraikuntza txiki zuri bat ikus dezakegu, plazan kokatua. Hura da aipatu dugun biltokia. Lokal haiek, ordea, bestelako funtzio bat zuten garai batean: Altzolako haurren eskolak ziren. Bi zatitan banatua, ezker aldean mutilak biltzen zituzten, eskuinean, berriz, neska-toak. Gerora, ume haiek ere Elgoibar aldera etortzen hasi ziren, hemengo eskoletara. 1982an, berriz, uholdeek bete-betean harrapatu zuten lokal hura. Bertan behera alperrik galtzen utzi beharrean, txoko hura berre-raikitzea erabaki zen. Horrela, behar bezala garbitu eta txukundu ondoren, eskuma aldeko zatia Altzolako nagusien biltoki bihurtu zen.

Gaur egun 30 bat pertsona omen dira bazkide-kuota ordaintzen dutenak. Hala ere, egunero 12 bat edo elkartzen omen dira, horien artean gizon bakarra da goelarik.

Goizero gimnasia apur bat egiten dute. Maria Mortalena, biltokiko ordezkari dena, Benidorm-en izan zen behin eta han ere egunero ariketa fisikoak egiten zituz-

ten. Monitoreak eman zizkion apunte eta marrakzi batzuen laguntzaz, bera da orain jarraitu beharreko pausuak agintzen dituen. Mariaren esanetara, ordu betez aritzen da egunero talde majo bat.

Arratsaldeak bestelakoak dira. Gehienetan karta jokuan egitea atsegin zaie. Hala ere, eta behar besteko jendea elkartzen denean, bingoan ere jokatzen dute. Edozein aitzakia da ona gutxienez pare bat orduz bildu eta alka-

rri kontuak esateko. Afari edo bazkaririk egiteko ohiturarik ez dute. Hala ere, urtebetetzeak ospatzen dituzte. Txistorra apur bat erre, pastelak ekarri, kafesnea berotu eta mahai bueltan gustura baino gusturago moldatzen dira.

Altzolako biltokia Elgoibarkoarekin lotuta dago. Mariak ekartzen ditu hango berriak eta Mariak eramaten hemengo erabaki, asmo, irteera eta bestelakoak. Ederki defenditzen dira, dudarik ez dago.

Maria Mortalena

Altzolako biltokiko ordezkaria

▪ **Altzolatarrak ala elgoibartarrak?**

- Altzolatarrak, klaro.

▪ **Nongoa zara Maria?** - Naparra, baztandarra. Arrayoz izeneko herri ttipi batekoa,

▪ **Eta nolatan hemen?** - Orain 34 urte han etzegon, pues, hemengo industriarik. Neuk hamar seme-alaba neuzkan eta honuntz etorri ginen. Telefonista bezela hasi nitzan Altzolan. Eta gaur arte.

• **Gustura?** Bai, gustura nago. Nahio nik trankil-trankil egon, nereaa ere herri txikia da eta.


• **1988tik zeu zara biltokiko ordezkaria. Noiz arte?** - Nik nahi det bertze jende gazteago batek hartzea baino ez due nahi. Ni ondo konpontzen naiz, baino... Hok kontent daude eta...



Ahoa zaintzearen garrantziaz

Haurtzaroan eta gaztaroan ahoaz arduratzen bagara, ondo zaintzen badugu, zahartzaroan ere ez dugu arazo gehiegirik izango. Bizitzako adin guztiek dute garrantzia, ezin dira bereiztu, ez eta desberdindu ere. Garbitasun ohitura minimo batzuk ez hartzeak, gerora hortz eta hagin gatera ekar dezake. 65-70 urte ditugunean, zenbat eta hagin gehiago izan, orduan eta erosoago mastekatuko dugu eta digestioa bera ere hobeto egingo. Zoritxarrez, adin hoietako gehienek hortzetako protesiak izaten dituzte, bizitza kalitatea jeisten delarik.

Gaur egun informazioa gazteeri zuzentzen zaie, emaitzak urte batzuk barru ikusi ahal izango ditugu. Hala ere, gure gazteek Europa mailan txantxar edo karie gehien dutenak dira. Kontuan izan behar da, txantxar hauetaz gain badirela beste gaisotasun batzuek ere, horien arabera hortzen inguruko zonak ahultzen direlarik. Azken hau, garbitasun txar baten ondorioa izan ohi da. Horregatik da hain garrantzitsua bazkal ostean zikinkeria guztia kentzea hagin



A. SANCHEZ ZABALETA
ESTOMATOLOGOA

eta hortzetati k.

Hiru zepillatu eguneko, derri-gorrezkoak dira, ahoa estimatzen badugu behintzat. Hortzeskubila batek bizitza mugatua dauka; filamentuak apurtuta edo gastatuak daudenean aldatu egin behar da. Ezin dugu bi urtez hortzeskubila berdina erabili.

Hortzeskubila 45ºko angulo batean jarri behar da, entzia eta hortzen artean pausatuz eta mugimendu zirkular eta albokoak eginez, horrela zikinkeria guztia entzietatik kanpora bidaliz. Hortzetarako hariak eta hortzeskubila inter-proximalarrak plaka dentala garbitzen laguntzen dute.

Ondorengo puntuetatik bat izatea zerbait gaizki dagoen seinale izan daiteke:

- 1.- Entziak gorritzea.
- 2.- Hortzak garbitzean edo noizean behin entzietatik odola ateratzea.
- 3.- Entzien atzerapenak eraginda, hortzak luzeagoak ditugulako sentsazioa.
- 4.- Hotzarekiko sentsibilitate gehiago.
- 5.- Haginak mugitzea.
- 6.- Flemoia agertzea eta mina ematea.

Honek berekin ekar ditzake bestelako sintoma batzuek ere, hala nola, gustu txarra ahoan, digestio pisutsuak, mastekazio txarra... Komenigarria da dentistarengana joatea urtean behin, gutxienez. Honela, besteak beste, urteak pasatzean ematen den hezur galera ere gera daiteke, garaiz hartuta noski.



Paris Eurodisney programa

Gipuzkoako Foru Aldundiak Paris-Eurodisney bidaiara antolatu du. Honen bidez, hirugarren adineko pertsonen astialdia pasatzeko beste modu bat eskaini nahi zaie. Bidaiak bi epetan egingo dira, lehenengoa ekainaren 6tik 30era bitartean eta bigarrena irailaren 12tik urriaren 4ra. Bi epe hauetan txanda ezberdinak antolatu dira, bakoitzaren iraupena lau egunetako izanik. Donostian izango da irteera eta bidaiaren tartetxo bat egingo da zerbait jateko. Prezioan alojamendu osoko pentsioa, Eurodisney-n eguna igarotzeko sarrera eta aseguru kolektiboa ere sartzen dira. Lehenengo epeko txandan parte hartu nahi duenak ekainaren 2a baino lehen eman beharko du izena. Bigarrenearako, berriz, uztaillaren 1etik urriaren 30era bitartean izango da aukera. Informazio gehiago jaso nahi duenak Udaletxeko Ongizate Sailera jo dezake edota Foru Aldundiko 900-43 43 43 dohainiko telefonora deitu.

Atsedena hartzeko aldi baterako egonaldiak

Programa honen bitartez familiarekin bizi diren nagusiak egoitzetara eramaten dira denboraldi baterako, horrela senitartekoek atsedena har dezaten. Udako oporraldia hurbiltzen ari denez, kontuan hartu behar da uztailla eta abuzturako eskaerak ugaritu egingo direla. Eskaerak aukeratu nahi den epea baino 3 aste lehenago egin beharko dira. Plaza mugatuak daudenez, eskaerak jaso ahala onartuko dira. Halere, aparteko eta larrialdietako kasuek lehentasuna izango dute. Egonaldiak 15 egun edo hilabetekoak izan daitezke eta aurten Eibarko egoitzan ari dira gauzatzen.

Pauli Astigarraga "Osoro" oinetakoak



• **Zenbat urte zapatak saltzen?**

Zapatak saltzen... 45 urte eramango ditzut.

• **Hasera nolakoa izan zen?**

Hasera oso gogorra, piskanaka joan ginen aurrera.

• **Ba al dago saltzeko formula bereziren bat?**

Jenerua zelakua dan esan bihar da. Konfiantzia eman eta beti klientiak nahi duena eman.

• **Ados al zaude "bezeroak beti du arrazoa" esaldiarekin?**

I Bai, beti eman bihar diozu arrazoa berakin bizi bihar zera eta.

• **Zeri ematen diozu garrantzi gehiago, modari ala norberaren gustuari?**

Bakoitzak berari egokitzen zaiona ikusi bihar deu baina modia ere beharrezkua da.

• **Eta komoditateari ala elegantetasunari?**

Komodidadia eta kalidadia moda barruan.

• **Zapata modernuak ala klasikoak?**

Guretzako ez hainbeste, baina gaztientzat modernoak euki bihar dia, beraiek markatzen dute modia eta.

• **Zapatak zer dira zuretzat, konplementu bat ala funtsezko gauza bat?**

Oso inportantia da, beraien gainian ibili bihar gera eta.

• **Pertsona baten zapatek esaten al dizute ezer?**

Bai, zapatek gauza asko esaten dabe.

• **Senar-emazteok sorturiko negozioa, familiak jarraitzeak pozten al zaitu?**

Sekulako poza ematen dit. Bestela desegin egin biharko litzake eta lastimia izango zan hainbeste kostatzen eta gero.

• **Udarako zer gustatzen zaizu gehiago: sandaliak, abarketak, zapatak...**

Aurten abarketia lehengo mailan dago baina sandalia ere oso freskua eta ona da.

• **Bakazioetan nora joango zinateke?**

Mendira. Formigalen eta Sanguesa aldean egun batzuek pasatzea asko gustatzen zait.

BELEN ARRIZABALAGA

KIROL ZERBITZUA

DOINUA: Loreak udan ihintza bezala.

Zaletasuna betidanikan daukagula Elgoibarren kirol zelaia eta pistinak ere baditugu hemen orain pistina libre break datoz hona halakoren baten eta gainera zerrenda hauxe hemen ez dela bukatzen.

Zerbitzu honek eman dizkigud gazteei zaletasuna Mintxeta ere hortxe daukagu guztiok maite duguna zaletasuna denei sortzea da hauen eginkizuna eta horrela sortzen baitzaigu kirolentzat maitasuna.



KEPA MENDIKUTE

q n	£13	crdn	r o orep	tren	Lorao 3	trooPP	c o r0
5	11	4	1,41				5
<p>Maiatzaren 6an hil zen MARINA MUGURUZA ETXEBERRIaren ahaideok, ESKERRAK eman nahi dizkizuegu haren hiletara joan zinetenoi, samin agurrak bidali eta une latz honetan lagun izan zaituztegun guztioi.</p>							
C. Di	eserds3	c IMIErdru	cialfflWr-P	c 721	Ei E		

HB: "Ongarrik izan behar du Antzokiaren ardura"

HBk Ongarri Zine Klubak Herriko Antzokiko gestioaren ardura hartu beharko lukeela adierazi du. Alderdi honen iritziz, "Ongarri Zine Klubeko kideek sakonki ezagutzen dutela zinea ederki erakutsi dute, beraiei esker mantendu baita Herriko Antzokiko lanek iraun duten bitartean zinea bizirik Elgoibarren". Zinea Udaletxeko Biltzar Aretoan ematea Ongarriren ekimena izan da eta udako aire libreko zinearen arduradunak ere badira. Dena den, PNV alderdiak Kultura Sailetik aestionatzea erabaki du Herriko Antzokia. HBren proposamena dela eta, herriko zinema gestionatzeko programa bat egin zezaten eskatu zien PNVk Ongarriko kideei. Hauen programa "irekiegia" zela eta, PNVk baztertu egin zuen programa hau eta Kultura Sailaren eskutan lagatzea gestioaren ardura erabaki. "Gestioari buruzko alor asko zehazteke daudenez, Ongarri Zine Klubari- adierazi zuten HBko zinegotziek - sei edo zortzi hilabeteko aproba epea emateko eskatzen dugu, Kultura Sailetik segirnera sakona eginez".

Haateskunde mahaietan egon behar direnen izenak atera dira

Joan den astelehenean, maiatzak 16, jendaurreko bilkuran, datorren ekainaren I 2an, Europear Legebiltzarreko hauteskundeak ospatuko direnez, hauteskunde mahaiak eratu ziren. Ondoren aipatuko ditugu zeintzu izan ziren suertaturiko pertsonak:

Aita Agirre plazako eskola zaharretan: Miren Mirari Charles, Jose Joaquin Agirrezabala, Adelaida Astigarraga, Miren Zabala, Amaia Olivares, Catalina Ruiz, Jose Maria Etxaniz, Jose Maria Alberdi, Jose Martin Barrenetxea, Pablo Lozano, Luis Maria Ostolaza, Dolores Tapia, Angelica Belategi, Begoña Juaristi, Jose Maria Aranzadi, Jose Luis Morcillo, Coro Rivero, Amaia Zabala.

Zaharren Biltokian: Maria Angela Fernandez, Ignacio Urzainki, Juan Carlos Azkarreta.


Pedro Muguruzako eskoletan: Jose Antonio Altzibar, Juani Cobos, Julian Garmendia, Jose Luis Rodriguez, Arantza Urain, Igor Leiaristi, Itziar Escalante, Vicente Santos, Eduardo Alonso.

San Rokeko haurtzaindegian: Jone Ajuria, Maria Jesus Gabilondo, Fco. Santiago Gurrutxaga, Maria Teresa Ortega, Antonio Zabaleta, Ane Mugerza.

Urasandiko Haurtzaindegian: Maria Isabel Guerra, Jose Ignacio Arriola, Concepcion Domarco, Jose Angel Rodriguez, Beatriz Muguruza.

Santa Klarako haurtzaindegian: Ana M. Aranberri, Haritz Arrizabalaga, Josu Mirena Iturbe.

Altzolan: Juan Cruz Oteiza, Iñigo Irueta, Esteban Bernedo.



UCTA.VV



- **IZENA:** Kristina Zuazubizkar.
- **ADINA:** 28 urte.
- **LANPOSTUA:** Euskara Teknikaria.
- **FUNTZIOA:** Euskararen normalizazioarekin zerikusia duen dena, Udal eta herri mailan. Euskara bultzatzeko plangintzak egin, euskara ikasteko dirulaguntzak bideratu, Udaletxeko hizkuntza eskakizunak.
- **NOIZTIK LANPOSTUAN:** 1988tik.
- **LANAREN ALDE ONA:** Gure hizkuntzaren alde lan egitea, euskara aurrera ateratzeko lan egitea, posible den neurrian.
- **ALDE TXARRA:** Euskararen normalizazioaren prozesuak dauzkan oztopoak. Emaitzak poliki lortzen dira eta txikiak izaten dira. Arlo guztietan dagoen lana denez, ezin zara danera iritsi zuk nahi bezain azkar.

Sallobente auzoa

- Sallobente edo San Lorentzo, izen bereko erreka eta bustitako auzoa, garai batean Ermuaran izenez ezagutzen zen eta nekazaritza eta abelazkuntzatik bizi zen.
- Industrializazioaren bultzadaz, ordea, nekazal nortasuna galdu zuen, zati batean behintzat, eta lur horietan soroen ordez tailerrak altxatu zituzten.
- San Lorentzo erreka eta lrukurutzeta gailurraren behealdean sor-tzen da, 800 metrotik gorako altueran eta bere ur garbi eta gardenak, Deba ibaian isuri arte, sei bat kilometrotan luzatzen dira. Ur emari gutxikoa izan arren, bizkorra da.
- Errekastoak, bizkarrezurra bailitza, bi isurkitan banatzen du espazioa, baserri gehienak Muskurutxuko behealdeko eta Azkarateko maldetan sakabanatzen direlarik. Baserri garaienak Upaigoitxi (432m), Unzejon (Untzon, 455m) eta Otxurteoga (Otxurtia, 485m) dira.

al Erreka ondoan kokaturiko baserri gehienak, uraren energia aprobetxatuz, errotak izan dituzte. Honela, errota hitza daramate

beraien deituretan: Gelatxo-errota, Garagarza-errota, Ibar-errota,, Garai batean, lurra lantzeaz gain, garia, artoa eta bestelako aleak ere ehofzen zituzten; gaur egun inork ere ez du zeregin hori betetzen. Baserri batzuek desagertu dira, dagoeneko: Unastegi-errota, Basarte-errota, Foteroko-errota eta Bekotorrea.

Muskurutxu mendiak garrantzi handia izan du auzoaren bizimoduaren. Elizako liburuetan irakur daitekeenez, XVII. mendean hasi eta XIX. bukaera arte, kapeilua eta baserriarrak, ermitan ohizko meza entzun eta gero, prozesioan joaten ziren letaniak kantatuz Muskurutxu mendiko gurutzeta eta bakrako sorotx bedeinkatza.

- Ospakizun hau Gurutze Santuaren egunean izaten zen (apirilaren bukaeran eta maiatza hasieran). Ekintza honetan garai bateko sinismena eta bizimodua isladatzen dira. Sallobentetarrak, baserriarrak izaki, udaberria loratzen eta ermetzen hastean, Jainkoari babesa eskatzen zioten, uzta ona eta ondasuna izan zitzaten.

PELLO ARRIETA

Julio Mugerza Dorronsoro (1907-1989)



1907ko apirilaren 12an jaio zen. 0 Lanbidez torneroa, aitarengandik, Jesus "el Ruso"rengandik umore fina heredatu zuen.

- 13 urterekin Euzka1-Jaia pilotalekuan raketista-pilotari lanetarako kontratatu zuten bere lagun Felix Kortabarria eta Kruz Gurrutxagarekin batera. Bi urtez egon zen bertan, Zapaterito, Baltasar... pilotariekin batera egon zelarik karteletan.

3 urtez Mikeleteetan jardun zuen. Mikeleteak desagertzean, Aldundiko funtzionarien plantilan zegoenez, 1939an Debako Aurrezki Kutxako adiminitratzaile izendatu zuten.

1942an Elgoibarko agentziara bidali zuten. 1965ean jubilatu zen.

1943-49 artean alkate izan zen.

Aurrezki Kutxan zegoen bitartean eta gero etxean, pentsioak tramitatuz, laneko espedienteak eginez,... izugarrizko laguntza eman zien herritar askori, haren truke inoiz ezer eskatu gabe. Beranduago omenaldia egin zitzaion.



garajea

AST1GARRAGA

San Frantzisko, 53. Tel. 74 01 86

X Ziklomotore eta
motorren konponketa eta

salmenta

X Motoserrak

X Desbrozadorak

X Neumat koak

X Bizikletak




Elgoibartarrak bigarren, Gipuzkoako XXV. Bolo Txapelketan

Joan den larunbatean jokatu zen Gipuzkoako XXV. Bolo Txapelketaren finala San Migelen. Elgoibartarrak, txirlo baten diferentziaz, bigarren geratu ziren talde bezala eibartarren atzetik. Bi ordu eta erdi inguru iraun zuen saioan, tentsioa azken unera arte mantendu zen. Eibartarrei tiro bakarra gertzen zitzaien eta irabazteko hiru txirlo bota behar zituzten gutxienez; boloa jaurti eta lau txirlo jausi ziren.

Banaka Bittor Astigarraga eibartarra izan zen garaile. Elgoibartarren artean, Jabier Osorok bigarren postua lortu zuen, Jose Irustak bosgarrena, Agustin Irustak zazpigarrena, Xabier Loiolak

hamaikagarrena eta Julian Loiolak hamazazpigarrena. Guztira 75 pertsonak hartu zuten parte finalean, txapelketan zehar 120 bat bildu izan direlarik. Talde bakoitzeko bost pertsonak har dezakete parte gehiezin. Bikoteka Jabier Osoro eta Jose Irusta elgoibartarrak izan ziren lehehengoak, Agustin Trusta eta Xabier Loiola laugarren izanik. Elgoibartarrek lortu dute Euskadiko Bolo Txapelketarako pasea, ekainean hasiko dena. Bertan, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako talderik onenak arituko dira elkarren aurka, lehenengo aldia delarik hiru probintzien arteko txapelketa antolatzen dela.



Jose Luis Azpiri, La Union tiro txapelketako irabazle

Jose Luis Azpiri izan da La Unionek antolatutako Erregularitasun Tiro Txapelketako garailea. Azpirik 25125eko emaitza lortu zuen hirugarren tiro saioan eta horrek txapela irabazteko aukera eman zion. Lehen saioan Ramon Agirregomezkorta izan zen irabazle eta bigarrenen, Aitor Garitagoitia.

SAILKAPEN OROKORRA:

- 1- Jose Luis Azpiri 75/75
- 2- Ramon Agirregomezkorta 68/75
- 3- Jose Maria De la Cruz 67/75
- 4- Aitor Garitagoitia 67/75
- 5- Javier Uzuriaga 66/75

Argazkian, Jose Luis Azpiri irabazlea, Ramon Agirregomezkorta bigarrena eta Jose Maria De la Cruz hirugarrena.



San Migelko bolo taldea. laz txapeldun eta aurtien bigarren.

A G E N

FUTBOLA

Mintxetan **Larunbata 21**

11,30: C.D. Elgoibar- Sporting de Herrera (Infantilak)

16,30: C.D. Elgoibar Union Txiki (Jubenilak)

ESKUBALOIA

Kiroldegian **Larunbata 21**

16,00: Elgoibar E.T. Zarautz (Kadeteak)

17,30: Elgoibar E.T. - Leizaran (Jubenilak)

19,00: Elgoibar E.T. - Urnieta (Neskak)



enn

3KL

Bidebieta 25 Elgoibar 14 (Kadeteak)

Tolosa 20 - Elgoibar 21 (Jubenilak)

Jauja 11 Elgoibar 11 (Neskak)

FUTBOLA

Elgoibar 0 Aitzgorri 0 (Kadeteak)

Elgoibar 1- Fortuna 0 (2. errejionala)

Lazkao 0 - Elgoibar 3 (Jubenilak)

Añorga 1 - Elgoibar 3 (Infantilak)

Jose Luis Gonzalez:

"Jaso dudan prima hakarra Valenciak emandakoa da"

Hogeita bederatzirteko elgoibartar hau ustekabeko protagonista bihurtu zaigu. Ligan zehar oso partidu gutxi jokatu eta gero, azken partiduko azken minutuan gelditutako penalti bat izan da arrazoa. Batzuek Jainkoaren parean jarri dute, beste batzuentzat deabruaren ondorengoa da. Bera, gertatutakoari garrantzia kentzen ahalegintzen da, Valenciak horretarako ordaintzen diola, behin eta berriz errepikatuz. Halere, kazetariak gainetik kendu ezinik dabil, ez da telefonora arriatzen. Bere arrebaren laguntzari esker, BARRENEk berarekin telefonoz hitzegitea lortu du. Ez gintuen ezagutzen baina jubeniletan Elgoibarren erakusten zuen apaltasuna azaldu digu berriz ere.

- Zer egin zenuen larunbatean bazter guztietan horrelako zalaparta sortarazteko?

- Nik ez nuen ezer berezirik egin. Futbol-zelaira irtetzen naizen guztietan gauzak ahalik eta ondoen egiten saiatzen naiz. Eta horixe egin nuen larunbatean ere.

- Baina zer sentitzen da liga zure eskuetan dagoela ikustean?

Egia esan, partiduan ez nintzen hortaz ohartu. Nire ardura bakarra Valenciak partidua ez galtzeko penaltia gelditzea zen.

- Zure aita gallegoa dela jakin dugu. Zer esan dizu?

Telefonoz egon naiz berarekin eta ez dit ezer berezirik esan. Nire lanagatik zoriondu nau, besterik gabe.

- Momentu batez lagaiozu hitzegiten bihotzari eta esaiguzu liga nork irabaztea nahi zenuen.

- Erantzuna ez da erraza, talde bietan baitauzkat lagun onak. Barcelona talde handia da, lau liga irabazi ditu jarraian. Depor, berriz, talde apala dugu. Urte osoan lan bikaina egin du baina azkenean ezin izan du liga irabazi. Pena bat da baina futbola horrelakoa da.

- Egia al da Coruñan enpatatzeagatik prima bereziren bat jaso duzuela?

- Ez dugu. prima berezirik jaso. Jaso dugun bakarra Valenciak, gure taldeak, emandakoa izan da.

- Gaia aldatuz. Zer eman zizun Relalak txuri urdin urteetan?

Realak jokatzeko aukera eman zidan, koTtfidantza. Bera da nire bihotzeko taldea. Valencian banago, Realari esker da.

- Erretiratu aurretik ikusiko al zaitu-



"Valenciatik aldegin behar badut Realera bueltatzea gustatuko litzaidake"

gu berriz euskal talderen batean?

- Valencian beste urtebeteko kontratua daukat. Hemen segitzen ez badut Realera bueltatzea gustatuko litzaidake.

Esan nahi al diezu ezer Elgoibarren bizi diren galiziarrei?

- Bueno, nik zera esango nieke: profesionala naizenetik nire eta taldearen onerako lan egitea tokatzen zaidala. Horregatik harro nago zelaira irten eta nire lana ondo betetzeaz.

- Eta Elgoibarko neska-mutil futbol zaleei zerbait esan nahi?

- Futbola gustatzen bazaie etengabe jolasteko esango nieke, lana gogor egiteko. Eta batez ere ilusio hori ez galtzeko.

Hamabost urte besterik ez zituen Elgoibartik Errealera joan zenean. Orditik etxea eta herria gutxitan zapaldu omen ditu. Valencian oporrak hartu bezain pronto, Elgoibartik bueltatxo bat emango duela aitortu digu. BARRENEkiko izan duen jarrera eskertuz eta alkarri "agur" esanda eman diogu bukaera elkarriketari.

IMANOL LARRANAGA

1111 A E1

Olaizaga Karate Taldekoak Azkoitin

Elgoibarko Olaizaga Karate Taldeko 22 ikasle Azkoitin izan ziren joan den larunbatean, Herri arteko Karate Txapelketa batean. Karateka elgoibartarrak ondo aritu ziren orokorrean. Alebinen kategorian brontzezko domina lortu zuen Josu Duran gazteak 60 partaideren artean. Mikel Armendia bostgarren sailkatu zen, Patricia Menor seigarren eta Nerea Sierra bederatzigarren. Elgoibartarrek Lekeitio, Markina, Donostia, Pasaia eta Azkoitiko karateken aurka borrokatu zuten.

Datorren hilaren erdi aldera, berriz, Elgoibarren burutuko da Herri arteko Karate txapelketa, eta bertara zazpi klub etorriko dira.

Mendaroko XV. Kross Herrikoia

Mendaroko Udalak, Mendaroko XV. Kross Herrikoia antolatu du. Orain arte Kurutzperen esku egon izan da kirol ekintza hau, baina kultur elkarteak mementuz martxan ez dagoenez, autengo edizioaren prestakuntzan Udala ibili da.

Lasterketa maiatzaren 28an izango da, arratsaldean. Ondoko kategoriek hartuko dute parte: alebinak (1982 urtetik aurrera jaiotakoak) 1400 metro egin beharko dituztelarik, infantilak (1979-80-81 urteetan jaiotakoak) 2650 m., gazteak (1976-77-78 urteetakoak) 5050 m. eta, azkenik, helduak (1975 eta aurreko urteetan jaiotakoak) 9850 m.

% Jose Mari Arakistain:

"Elgoibar da neretzat ekiporik maiteena"


1 Eibar ez da jeitsiko. Nolako izan zen azken partidua? - Uste dot errez irabazi gendula. Burgos jeitsita etorri zan, konpromizua betetzera. Hori ez da dana, tenporadan zihar 33 puntu atera bihar izan ditugu. Lehenengo bueltan, ondo ibili ginan, batez ere etxian. Jendiak ilusioekin jarraitu dau. Badakizu Eibarren zer gertatzen dan. Helburua ez jeistia da.

1 Eta lortu ere bai. - Gainera ligo presupuestu bajaran ere guk daukagu. Españolak adibidez 1200 milioko presupuestu dauka eta guk 120. Horiekin konpetitzen egotia nahikua da. Meritu haundixa dauka Eibarrek eta gainera, azkenian 10. postuan geratu gera. Bigarren bueltan, kanpuan ondo ibili gera eta azkenera nahiko ondo heldu gera.

1 Zergatik horrelako gorabeherak? - Gure futbola indartsua da. Dirurik ez daonez kalidadia eukitzia zaila da. Ekipuak entrenamenduetan eta zelaixan profesional bezala jokatzen du baina diru aldetik ez dira profesionalak. Partidu bat irabazteko ekipo ona eukitzia ez da nahikua, gauza asko dia.

1 Mantentzeak morala emango zion taldeari, ez? - 2Bra bajau ezker, lasaixo ibiliko ginan eta akaso, goiko postuetan. Baina jendiak Bareelona, Español, Mallorca eta horrela-

- Adina: 45
- Kinielarik egiten al duzu? Ez.
- Lesiorik ez edukitzeko? Zaindu eta ganoraz Ian egin.
- Eta lesio bat sendatzeko? Niregana etorri.



ko ekipuak ikustia nahi du eta ahal bada irabaztia. Hori oso zaila da.

Jeitsi izan balitz, norena izango litzateke ardura? - Erresponsabilitatea neria izango zan. Baina hori normala da. Hasi nintzian gainera, eibartar eta elgoibartarren arteko gauza horren beldur ere banintzan. Imajinatu, sei urte mantentzen eta elgoibartar bat etorri eta Eibar baxatzia... gogorak entzun biharko nitxun.

1 Entrenatzaile gogorra al zara? - Nahi baino gehiago. Eibarrek ez dauka tekniarik eta beti a tope ibili bihar. Partidu danak dira zailak eta desgaste handia sortzen du.

1 Hurrengo denboraldian Eibarren berriz? - Ni gustura ibili naiz eta nerekin ondo portau dia. Baina lenengo zein asmo daukaten ikusi nahi det, presupuestua ere txikitu ein

bihar dala entzun det eta. Ez nuke sei urteko bolada hori nik apurtzerik nahi.

1 Eibar ala Elgoibar? - Elgoibar, dudaripe. Beti bihotzian eraman izan det, Badajozen, Melillan edo Sevillan egon.

FeDiero

OKIIIIDEGIA
OPILDEGIII

San Frantzisko, 4
74.07.35

40itelto iffekiito
Errosari 11 behea

gt urriTm
WYTOPTZPILE11

Pinturas Elgolbar

Fermin

- Pinturak
- Enpapelatuak
- GoteM
- Igeltsuzko dekorazioak
- Lurrak
- Pintura japoniarra, etab.

Urasandi z/g
(Anayak etxed)
Tel: 74 39 91

Buztinezko ukulLrak sortzen

Bukatu berri da Lurki zerami-ka taldeak antolatutako buztin ikastaroa. Hamar ikasle aritu dira apirilaren 25etik hil honen 19ra arte, buztin zatietatik formak atera nahiean. "Ez da zaila dio buztinean grabatzen ari den emakume batek- pazientzia behar da, asko gainera". "Haseran oso sinplea dirudi, baina gero, figuratxo bat egiteko aurrez lan mordoa egin behar dela ikusten duzu", erantzuten dio bi mutur dituen ontziaren paretak leuntzen diharduen aldameneko ikaskideak. Orokorrean pozik daude ikasleak, asko ikasi omen dute, eta benetan gauza politak aterako direla dio Jose Juaristik, ikastaroaren arduraduna. Buztin arrunta erabili dute, gorria, eta txurroen eta plaken teknika ikasi dute. Azken pausua hustu-



keta ikastea izan da. Behin figurak egin eta gero, kolorea ematen zaie, urdina edo berdea, eta egosi eta gero esmaltea. Hurrengo ikastaroa, ekainaren erdi aldera, tornoari buruzkoa

izango da. Oraindik ez daki Josek berak ere ikastaroa antolatzeko aukerarik izango duen. "Arazoa dirua da, jendea zain dago ikastaroa egiteko, baina Udalak dauka azken

Musikeskolaren kurtso bukaerako ko Itzertuak



■ Kontzertuak urtean zehar ikasitakoa erakusteko oukera dira.

Inazio Bereziartuako ikasle eta irakasleek 93-94 ikasturteko bukaerako kontzertuak emango dituzte datorren asteko 25ean, asteazkena, 26an, osteguna eta 27an, ostirala. Hiru egun hauetan ikasleek urtean zehar egindako lana erakutsiko dute arratsaldeko 8,30etan San Bartolome parrokian hasiko diren kontzertuetan. Hilaren 25ean, bibolin taldea, pianoa sei eskutara, saxofon bikotea, akordeoi laukotea, tronpetta eta pianoa batera, txistua, perkusio eta piano laukotea, klarinetea eta kitarra, flauta txeloa eta pianoa. korala eta "Hauspo Soinua" taldea entzuteko parada izango da. Hurrengo kontzertuan, hilaren 26an, zio Bereziartua orkestak jardungo du besteak beste, eta, hilaren 27ko kontzertuan txistulari taldeaz gain, akordeoi orkestak eta koroak batera arituko dira.

13CUTICUE DEL IDASI

Enpanada

Baserriko ogia **ondorg'fa**

B. Ecnarro, 1 w 74 33 92



Andoni Tellabide

- Berogailuak
- Suteen aurkako instalakuntzak
- Gas instalakuntzak

IBAI Sturanasion

Santa Ana 46, behe. 71 74 07 93

IRAKASLE TALDEA ETA KIROL EKINTZARI

Manu Mora

- KIROL HEZKUNTZAN LIZENTZIATUA
- A Jt.JDOKO ENTRENATZAILE NAZIONALA (4.DAN)
- ATLETISMOKO MONITORE NAZIONALA
- ESKUBALOIKO ENTRENATZAILE ERREGIONALA



Jose Antonio Hidalgo

- USKULAZIO ETA HALTEROFILIA
- NITORE ERREJIONALA (F.E.11.)
- ESKUBALOIKO ENTRENATZAILE NAZIONALA
- HEZKUNTZA FISIKO, BOLEIBOL, ATLETISMO ETA SASKIBALOI MONITOREA
- 3. ADINEKO GIMNASIAN ESPEZIALIZATUA.



Olga Garcia

- AEROBIC MONITOREA (INTESA)
- HEZKUNTZA FISIKOAN MONITOREA
- WORKSHOP IKASTAROETAN TITULATUA (STRETCHING, STEP, CARDIO FUNK, SALSA AEROBIC, FITNESS ETA AEROBIC-EN ESPEZIALISTA)



Oscar Novo

- A TAEKWONDOKO ENTRENATZAILE ERREJIONALA (2. DAN)



Charo Rojo

- A EMAGINA
- ERDITZEAREN PSIKOPROFILAXIAN DIPLOMATUA (HAURDUNENTZAKO GIMNASIA)

JUDO A

MUSKULIZIO A

'1.41 EDI WONDO A

GIIMNASIA

AZIPMBIC

IMAU RDUNENTZAKO GDINASHA

DIA DAS LETRAS GALEGAS 1994

Aste bukaera honetan ere Galiziarren jai a ospatzeR dugu Ilrasandin.

Zatozte!! Galiziako jakirik gozoenak da5tatzeko aukra izango duzue!!



21 LARUNBATA

10,30: "Andaina Da Lua" Dantza taldearen eta "Anduriña" tunaren kalejira.

11,00: Jaki gailegoen dastaketa Urasandiko ikastetxeko plazan.

12,00: "Andaina Da Lua" Dantza taldearen eta "Anduriña" tunaren saioa.

16,30: Haurrentzako jolasak.

18,00: Galiziar jakien dastaketa.


19,00-22,30: "Montes Blancos" orkesta.

22 IGAN DEA

10,30: San Bartolorne elizan meza Nagusia gailegoz.

12,30: "Andaina Da Lua" Dantza taldearen eta "Anduriña" tunaren saioa Urasandiko ikastetxean.

14,30: Anaiarteko bazkaria.



OSASUNA

Anbulategia:

Larrialdiak ■ 461111
Txanda hartzeko ■ 743354
Alkoholiko Anonimoak ■ 740385
D.Y.A (anbulantzia) ■ 464622
Gurutze Gorria ■ 743864
Mendaroko Ospitala ■ 756264
Drogomenpekotosun Z ■ 741008
Odol Emailak ■ 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak ■ 740442
PESA (Eibar) ■ 112131
Taxi Geltokia ■ 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua ■ 744366
Kirol Zerbitzua ■ 742158
Kultura Zerbitzua ■ 742158
Mendaroko Udala ■ 756100
Ongizate zerbitzua ■ 743736
Udaletxea ■ 741050
Udaltzaingoa ■ 741394

BESTELAKOAK

Caritos ■ 740142
IMI ■ 741196
Kontsumo Bulegoa ■ 743088
Liburutegia ■ 743525
Musika Eskola ■ 742145
Mintxeta ■ 744315
Polikiroldegia ■ 741301
Postetxea ■ 741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza ■ 740296
Zaharren Biltokia ■ 740526

IKASTETXEAK

Herri eskola ■ 740879
I.M.H. ■ 744132
Institutua ■ 740267
Ikastola ■ 744441
L.H.I ■ 744480
Pilar Ikastetxea ■ 741331

KOMUNIKABIDEAK

BARREN ■ 744112
El Diario Vasco ■ 741073
El Mundo ■ 118506
742267
El Correo Español ■ 741082
Egin ■ 118421
Deia ■ 741157

Bestelakoak

Erloju bat aurkitu dut.
"Z" 74 27 06

Siberian HUSKY BAT
GALDU zait. Emea, grisa eta
txuria, begi urdinak. Izarraitz
mendi inguruan.
*TT 11 33 32. Rikardo

JERTSE ZURI BAT galdu
nuen hilaren 2an, King-
Kong-eko autobus geltokian,
Mendarorako eguerdiko
autobusa hartzerakoan.
v* 74 34 52.

Lana

31 urteko neska etxeko lanak,
umeak zaindu, garbiketa
lanak eta antzerako lanak
egiteko prest dago.
tr 17 17 40

GARAJE BAT saltzen da
pista beltzean. Prezio egokia
74 08 79 Julian

Ford Escort gorria saltzen
dut. SS 0883 AJ.
z" 74 15 24

"Catusa" 4,20m.tako
karabana bat salgai dut.
Ondo zainduta.
17 74 12 95 Pello

BUNGALOW BAT
ALOKATZEN DUT Santa
Polako hondartzako lehen
ilaran. Ekaina, uztaila eta
iraila.
Tr 74 27 02 Ana

Apartamentu bat daukat
Benidorm-en alokatzeko
moduan. Levanteko
hondartzako lehen ilaran.
Igerilekua eta aparkalekua
dauka. Baita labadora eta aire
girotua ere.
15' 74 16 57 I 11 32 15

PISU BAT SALGAI
Altzolan. Karmen plaza 3 - 1
ezkerra. (15 milioi)
Interesatuok etorri
bertora.

Hilabeteko SETTER txakur
kumeak salgai.
12 14 82

Estrenatu gabeko WIND-
SURFeko TABLA BAT
saltzen dut. Prezio egokia
13 740392/740465
Lorea

GARAJE BAT SALTZEN
DUT Olastopeko (Olaso
Industrialdea) 40. zenbakian,
bigarren solairuan.
1T (941) 11 03 05 Rafa

KANPING DENDA
HAUNDI BAT saltzen da.
Oso berria dago.
17 74 15 22

KITARRA ELEKTRIKO
BAT SALTZEN dut. Egoera
oso onean. Oso merkea.
Deitu ofizina orduetan:
s' 74 17 15 Iban

GARAJE BAT
ALOKATZEN DA, pista
beltzean. Bere atarekin.
Tr 74 16 97

YAMAHA TZR 80 bat
saltzeko daukat. SS-AB
tr 74 41 12 Nekane

Ibilaldia 94

• AUTOBUSAK • AUTOBUSAK • AUTOBUSAK •

• Maiatzaren 22an, BILBON.

• Prezioa: 900 pta. (Bazkideak 600 pta)

© Izena emateko: ELGOIBARKO IZARRA K.E.

ANTOLATZAILEA:
ELGOIBARKO IZARRA
Kultur Elkartea

LAGUNTZAILEAK:
ELGOIBARKO UDALA
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

4 riP

OSTIRALA

19,00 ARGAZKI ERAKUSKETA

Gaia: Euskal tradizioaren jaiak.
Egilea: Alfredo Feliu Corcuera.
st Kultur Etxean.
Ekainaren 5a arte.

20,30 ABESBATZEN KONTZERTUA

Eibar, Zarautz, Deba eta elgoibarko
Musikeskoletako abesbatzak.
✓ San Bartolome Elizan.

LARUNBATA

09,30 MENDI IRTEERA

Elgoibar-Kalamua-Arrate
✓ Irteera Goiko Errota zubitik
Antolatzailea: Elgoibarko Ikastokt.
Guraso, irakasle eta haurrentzat.

11,00 PREBENTZIO JAIA

Kolektiboen konzentrazioa.
€ Plaza Handian.
Antolatzailea: Errotatxo.

13,00 MANIFESTAZIOA

Droga trafikoaren aurka eta
prebentzioaren alde.
✓ Plaza Handian.
Antolatzailea: Errotatxo.

IGANDEA

09,30 DULTZAINEROEN DIANA

11,00 BANDAREN KALEJIRA

12,30 BANDAREN KONTZERTUA
✓ Plaza Handian.

23

ASTELEHENA

5,30 EMAKUNDEREN BULEGO
IBILTARIA

"Gero eta gertuago" programa.
Antolatzailea: Emakunde.

19,30 ZINE EMANALDIA

"Shirley Valentine"
✓ Kultur Etxean.
Antolatzailea: Emakunde.

20,15 ATLETISMO BILERA

✓ Ikastolako filmina gelan.

ASTEAZKENA

20,30 KONTZERTUA

Inazio Bereziartua Musikeskolako
93-94 kurtso bukaerako
kontzertuak
./San Bartolome elizan.

1

OSTEGUNA

18,30 GAZTEEN TREBATZE
SOZIALERAKO PROGRAMA

✓ Kultur Etxean.
Antolatzailea: Hodei.

20,30 KONTZERTUA

Inazio Bereziartua Musikeskolako
93-94 kurtso bukaerako
kontzertuak
iSan Bartolome elizan.

27

OSTIRALA

18,00 TRINIDADE JAIETAKO
DANTZALDIA

/Zaharren Biltokian.

20,30 KONTZERTUA

Inazio Bereziartua Musikeskolako
93-94 kurtso bukaerako kontzertuak
iSan Bartolome elizan.

23,00 KONTZERTUA

"Cojon Prieto y Ios Huajalotes"
/Plaza Handian.

ixandak

FARMAZIAK:

21, larunbata: Bidasolo
22, igandea: Bidasolo
23, astelehena: Yudego
24, asteartea: Yudego
25, asteazkena: Yudego
26, osteguna: Yudego
27, ostirala: Ormazabal

OKINDEGIA:

22, igandea: Fotero



DEBA KALEA 12.
Soki e Prefonuk, si. 2087% ~~ELGWR~~

ERREF RMAK

.401404

ETXEBERRIA Ahizpak

Santa Ana, 1
Tel. 74 01 40 ELGOIBAR

SUPER LEHIAKETAREN ERANTZUNAK

I. GALDERA SORTAREN ERANTZUNAK

Noiz kaleratu zen BARREN aldizkariaren lehen alea?

C. 92ko abenduaren 2. hamabostaldian

Zein da Ego-Toki elkarteko loritoaren izena?

A. Anbolo

Zein sari irabazi zuen Angel Mari Albizu judokak 1993an?

A. Euskadiko Txapelketa.

4 Zenbat txistularik osatzen clute Udaltaldea?

B. 12

E Ekintza hauetatik, zein zuzendu zuen Pedro Muguruzak?

C. "Valle de los caídos"

Q. GALDERA SORTAREN ERANTZUNAK

Zein urtetan sortu zen San Bartolome Ikastola?

C. 1962an

Baltasar Elkarteak sortu zenean, zein ezaugarri zuten bazkide guztiek?

A. Denek trajea eta gorbata zeramaten

B Bikote hauetatik nork eskalatu zuen Aconcagua?

B. Barrenetxea - Konde

A Margolari hauetatik noren erakusketak **I*** ikusteko aukera izan genuen 1993. urtean Elgoibarko Kultur etxean?

C. Santi Oria

Noiz jaio zen Luis Mazantini **#0*** toreatzaile elgoibartarra?

A. 1856ean

4>4110>11WW4/14/1WW4/10>
\$ 3, GALDERA SORTAKO \$
\$ IRABAZLEA \$
\$ JOSE ANGEL ZABALA \$
\$ IZAN DA. \$
\$ Autonomo kuota Caja Laboralean \$
\$ ordaintzeagatik **50.000 ptako** \$
\$ saria jasotzen du. \$

\$ **Zorionakni** \$
\$ **0>ww4>olvbvblnlwvwb** \$

Aiños edg: 44444
irabazlearen orA⁴
0140^{1*}

Norena da "Esku leuna" izenburua duen liburua?

A. Gotzon Garaterena

Zein da Elgoibarko elkarterik zaharrena?

B. S. M. Biar Dana

3 lazko San Bartolome egunean jokatu zen pilota partidu estelarra...

A. Unanue - Errastik irabazi zuen.

4 Zein da Ehun Kilo taldearen diskoaren izena?

C. Euli Artean

5 Zein urtetan bota zen Merkatu Plaza zaharra?

A. 1969an

Elgoibar ezaagutzeko giltza



CAJA LABORAL



E



I_J TS.

Seat Cordoba da. Diseinu berria. Probokatzailera bere prestakuntzetan.
Bikaina seguritatean. Ekipamenduan. Ezingo duzu aguantatu.
Erakutsi.



TEKNOLOGIA AI, ENIANA

**EGIN EZAZU
APROBA ETA
JAKINGO DUZU
ZERGATIK**



Eibar Motor, S.A. Otaola hiribidea, 17 - Tel. 11 36 42 - EIBAR